

PRENTSA-OHARRA

Ikus-entzunezkoen Klusterrak EikenBANKen bigarren edizioa jarri du martxan; Internet bidezko proiektuen lehiaketa da, eta talentu ez-profesionalak Euskadin geratzea da bere helburua

- **Proiektu irabazlea (pelikula, dokumentala, lehiaketa, telesaila, realitya...) euskal enpresa batek edo gehiagok produzituko dute, gero EITBk emititzeko.**
- **Proiektuaren bultzatzaileak prestakuntzarako beka bat jasoko du, proiektua aurrera eramango duen produkzio-etxean 4 hilabetez lan egiteko.**

Bilbon, urtarrilaren 26an. Eiken – Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak EikenBANKen bigarren edizioa jarri du martxan. Eikenen proiekturik berritzaileenetako bat da, eta **sortzaile gazteen talentu ez-profesionala Euskadiko Ikus-entzunezkoen Sektorearen enpresekin harreman zuzenean jartzea** da bere helburu nagusia, lankidetzaz horretatik proiektu lehiakor berriak sor daitezen. Era berean, EikenBANKen helburua **sorkuntzarako talentua** aurkitzea da, eta talentu hori **Euskadin gera dadin lortzea.**

Bigarren edizio honek lehenengoaren eskemari jarraitzen dio oinarrian, baina baditu nobedade batzuk ere. Proiektu irabazlea produzitzeko konpromisoaz eta 4.000 euroko diru-sariaz gain, proiektuaren titularrak **zenbateko bereko beka** bat jasoko du, lau hilabetez bere ideia garatuko duen produkzio-etxearekin batera lan egiteko. Gainera, aurtan, EikenBANKek **Euskadiko produkzio-etxeetako erreferentziako programetako gidolarien lankidetzaz** izango du; izan ere, prestakuntza-zentroei, zine-eskolei eta unibertsitatei egin beharreko informazio-aurkezpenetan hartuko dute parte.

EikenBanken arduradunek urteko lehenengo hiruhilekoan aurkeztuko dute ekimena, prestakuntza-zentroetako, zine-eskoletako eta ikus-entzunezkoekin lotutako zenbait titulazio unibertsitariotako ia **bostehun ikasleren** aurrean.

Aurreko edizioan bezala, programa honetan ikus-entzunezko proiektu originalen bat duten gazte sortzaileek har dezakete parte, baldin eta ez badaude edukien esparruko sektoreko enpresekin lanean edo lankidetzan, modu profesional eta jarraituan. Programaren oinarriak eta prozedura osoa webgune batean dago jasota, zeinen bitartez ekimen osoa artikulatuko baita (www.eikenbank.com).

EikenBANKek proiektu bat hautatu eta sarituko du, eta proiektu hori programan parte hartzen duten ekoizpen-etxeetakoren batek edo batzuek garatuko dute profesionalki.

Azken urrats gisa, proiektua EiTbN emitituko da. Era berean, programa honetatik beste lankidetzak osagarri batzuk sortu ahal izango dira sorkuntzarako talentuaren eta Euskadiko ekoizpen-etxeen artean. *“Helburua da talentua edo sormena aurkitzea, eta daukan ideia hori egia bihurtzeko aukera ematea; gainera, bere produktua profesionalekin batera gainbegiratu ahal izango du. Iaz 27 proiektu jaso genituen, espero genuena baino askoz ere gehiago; eta irabazlea, Alazne Páramo, dagoeneko lanean dago bere lehiaketaren garapenean, 3Koma produkzio-etxearen eskutik”,* azaldu zuen Eikeneko zuzendari Itziar Menak.

Bideragarritasun komertziala

EikenBANK irekita dago ikus-entzunezko produktuarentako proiektu, gidoi, maketa edo pilotuetara (telebistako saioak; esate baterako, telesailak, lehiaketak, magazinak edo realityak, animazioko produktuak, dokumentalak, multimedia edukiak...), baldin eta EikenBANK programaren barruan egituratutako formularioaren arabera aurkezten badira. Hori horrela, programaren arduradunek proiektuen **originaltasuna eta bideragarritasun komertziala** baloratuko dute, batez ere.

Eiken – Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak sustatutako proiektuak 3Koma, Baleuko, Canal Bizkaia, EiTb, Irusoin, Jarkatza, K2000, Orio Produkzioak eta Pausoka enpresen inplikazioa dauka. Gainera, babes instituzional handia dauka; hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak eta Kultura Sailak, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako Berrikuntza sailek, SPRIk, Bilboko Udalak eta BBKren Gazte Lanbidean Fundazioak babesten dute ekimena.

Instituzioek modu positiboan baloratu dute elkarren lehiakidetzaren diren enpresak – Euskadiko Ikus-entzunezkoen Sektoreko garrantzitsuenak– proiektu batean elkartu izana, **profesionala ez den talentuaren aldeko proiektu bat bultzatzeko**. Aurreko edizioan bezala, ekimenak EHU/UPVren, Mondragon Unibertsitatearen eta EAEko zine-eskola guztien babesa dauka.

Proiektua ESCIVIKo, Erandioko Ategorri – Tartanga Institutuko eta ikus-entzunezkoen ikerketarako IMVAL Zentroko ikasleei aurkeztu zaie dagoeneko. Datozen asteotan, Bizkaiko eta Arabako ikus-entzunezkoen zenbait ikastetxetan, Deustuko Unibertsitatean eta Mondragon Unibertsitatean aurkeztuko da, eta, bertan, “Goenkale” saioko gidoiaren zuzendaria den Pedro Fuentes arituko da.

Lanak aurkezteko epea **apirilaren 30ean** amaitzen da.